

# KARRAXIZ

HITZAK / LETRA: NESTOR BASTERRETXEA

DOINUA / MUSICA: SARA SOTO GABIOLA

ABESBATZA / CORO AMETSA, de IRUN

# KARRAXIZ

MARI

¡ORTZI!

hona hemen zure Ortziko izarpetan  
 gu, zure ilargi beltz,  
 gu, zure odolezko eguzki.  
 Urtu itzazu soinuak gure eztarritan,  
 egizu gure hitzak kanta dezaten.

ABESBATZAK

Ez,  
 ez, ez, ez... ¡Bai!

MARI

Zuen amandre eta erregin Marik,  
 eza diot, eza diona, eza izanen da...  
 Ez, ametsetako askatasunari,  
 ez, maitasunari,  
 ez, zuzentasunari.  
 Ingudean errainu,  
 ortzietan su,  
 lur-erraietan ¡kantu!

IDITTU eta

Esan nahi dizuet  
 ubide bat ideki didatela  
 goitik behera, goitik behera...  
 eta behatz salatari bezala  
 utzi didatela setsua  
 seinalatzen zaituelarik...  
 Beltza da nere larrua  
 eta zur irazekia  
 estaltzen nauena...  
 ¡Basoaren bihotza!  
 Zer balio du azalgogorrak  
 haizkorak jotzen duenean?

ABESBATZAK

Esan nahi dizuet  
ubide bat ideki didatela  
hibai bat iduri  
Gipuzko eta Laburdi artean.

MARI                                 ¡Ehiztari!  
   Itzal itzak arratseko argiak...  
   Hire ehiza hegaldatu duk...  
   Etzen piztitxo bat baizik  
   hire antzea neurtu nahi zuena.  
   ¡Ehiztari!  
   ¡Oa orain!  
   Ez dazagukan gizon batzu  
   urreratzen dira,  
   hitzei muturrekoa ezarriz,  
   gorputz eta kantu hortzikatuz,  
   oroitzapen belardi  
   eta etorkizun euri  
   naro lehortuz

ABESBATZAK                         ¡Oa, oa...!  
   Ez dazagukan gizon batzu  
   urreratzen dira...  
   ¡Oa, oa...!  
   ...binan, binan, binan,...

EHIZTARIAK                         Binan,  
   binan datorzkit...  
   belzdura hertsitik  
   teink  
   bide eginik,  
   binan, binan,

ni atzeman  
eta nere azken goizaldiko lazturari,  
¡lot nahirik!...  
Gizon anaia,  
hiltzera noa.

ABESBATZAK      ¡Hiltzera oa!

EHISTARIAK      Hau da nere amaiera eta zuen hasiera.

ABESBATZAK      ¡Amaiera eta hasiera!

EHIZTARIAK      Askatasuna egiaz maitatu gabe  
bizitzen da

ABESBATZAK      ¡Maitatu gabe!

EHIZTARIAK      Gure ahalmenaz baliatu gabe.

ABESBATZAK      ¡Baliatu gabe!

EHIZTARIAK      Hogeい behatz eta bi belarri ba ditugu,  
bainan arima gaizki dazagu.

ABESBATZAK      ¡Gaizki!

EHIZTARIAK      Gaizki dazagu gure helburua.

ABESBATZAK      ¡Gaizki!  
Hiltzera oa,  
amaiera eta hasiera,  
maitatu gabe,

baliatu gabe  
¡Gaizki, gaizki!

MARI Hau da,  
hiltzera doanaren errepika...

LANGILEEK eta Mendeen zolatik  
ABESBATZAK giza-berekoikeriaren  
haiztoak jasan ditugu,  
eta lurreko alderdi guztieta  
odolustu gaituzu...  
¡Zenbaiterainoko enek izigarri  
osatu ezina!  
¡Nolako bizkar makurtuen negarra!...

**LANGILEEK**      ¡Gu langileok!  
                          ¡Gora besoak!

ABESBATZAK      i Gora!

**LANGILEEK**      *'Garai arrazoibideak'*

ABESBATZAK : Garai'

**LANGILEEK** i Handi oldarraldia'

## ABESBATZAK : Handi '

**INTXIXU eta  
ABESBATZAK** Nere amagandik eta nere senideengandik,  
nere etxeko erleek...  
nere amagandik eta nere senideengandik,

nere etxeko erleek ba dakite,  
ba dakite hil naizela...

Orain, ixiltasun garbietan nago,

MARI garbi ixiltasunak,

INTXIXU negurik gabe,

MARI negu gehiagorik gabe,

INTXIXU elur-kanturik gabe

MARI elurra kanturik gabe,

INTXIXU Hezurrak garbi...  
Altzairuzkoizar gogor  
hazi dira nere gorputzean...

ABESBATZAK      Su  
                  haundi  
                  bat  
                  ba dator  
                  Bizkaiko ibarretatik...  
                  Kee  
                  garai  
                  eta segidako trumoi, mendiz mendi...  
                  ¡Gernikatik!  
                  Nola  
                  erretzen  
                  doan lurra  
                  nola

zartatzen harriak...  
¡Zazpi, irurogeitamar, zapireun,  
zazpi milla!  
Konta  
itzazute  
oihu  
dagiten haurrak...  
eta lunoko mendien  
malda gurietan  
-berde ta ur-  
izar  
itzazute  
letra handitan  
begiratzen ziguten begiz  
gaurgero inoiz  
begiratuko,  
iez  
digutenen  
izenak!...

AKERBELTZ eta ¡Axuri beltza ono da  
ABESBATZAK baiñan  
buztan txuria hobe!  
Gaur astezkena da  
eta ostirala,  
atzo larunbata zen  
eta martxoa...  
Deabru gobernaria  
guregana etorri da,  
deabru gobernaria  
gurekin afaltzen izan da,  
deabru gobernaria

adar urdinez beterik burua...  
¡Plo, plo, plo!...  
Pertza handi batean  
sartuta dago...  
¡Axuri beltza ona da  
baiñan  
ez balitz  
deabru gobernaria...  
¡DEABRU!

# KARRAXIZ

- MARI                   ¡ORTZI!  
                        He aquí  
                        bajo las estrellas de tu firmamento,  
                        a nosotros,  
                        tus lunas negras,  
                        a nosotros, tus soles de sangre...  
                        ¡Funde músicas en nuestras gargantas,  
                        haz que canten  
                        nuestras palabras!
- CORO                   No, no, no... ¡SÍ!
- MARI                   El no,  
                        yo vuestra dama y reina Mari  
                        doy al no.  
                        Quien dice no, será no.  
                        No a la soñada libertad,  
                        no al amor y a la justicia.  
                        ¡Rayos en el yunque,  
                        fuego en los cielos,  
                        canciones en las entrañas de la tierra!
- IDITTU                Yo quiero deciros  
                        que un canal me han abierto  
                        de arriba abajo,  
                        y han dejado mi sexo  
                        como un dedo acusador  
                        que os señala...  
                        Negra es mi piel  
                        y madera encendida lo que cubre...  
                        ¡Corazón del bosque!

· ¿de qué sirve la dura corteza  
cuando pega el hacha?...  
Yo quiero deciros  
que un canal me han abierto  
en forma de río,  
entre Guipúzcoa y Laburdi.

MARI                    ¡Cazador!  
                          apaga las luces de la tarde  
                          tu presa ha volado,  
                          sólo era una pequeña bestia  
                          que medía tu habilidad...  
                          ¡Corre ahora, cazador!  
                          unos hombres que no conoces  
                          se acercan amordazando palabras,  
                          mordiendo cuerpos  
                          y canciones,  
                          secando praderas de recuerdos  
                          y lluvias fecundas de porvenir...  
                          ¡Corre cazador!

CORO                  ¡Corre cazador, corre!

CAZADOR                De dos en dos me llegan  
                          viajando tensos por la negrura estrecha  
                          por encontrarme,  
                          de dos en dos,  
                          y atarme al espanto  
                          de mi última madrugada...  
                          Hermano hombre,  
                          voy a morir.

CORO ¡Vas a morir!

CAZADOR Este es mi fin y vuestro principio

CORO ¡Fin y principio!

CAZADOR Se vive sin amar de verdad  
la libertad

CORO ¡Sin amar!

CAZADOR Sin utilizar nuestras energias

CORO ¡Sin utilizar!

CAZADOR Tenemos veinte dedos y dos orejas,  
pero mal conocemos el alma.

CORO ¡Mal!

CAZADOR Mal conocemos nuestro destino.

CORO ¡Mal!  
vas a morir,  
fin y principio,  
sin amar, sin utilizar,  
¡Mal, mal!

MARI Esta es  
la letanía del moribundo.

TRABAJADORES      ¡Nosotros, los trabajadores!  
y CORO

...

Desde el fondo de los tiempos hemos sufrido  
los cuchillos  
del egoísmo humano,  
y hemos sangrado  
por todos los paisajes de la Tierra...  
¡Cuánto tremendo cansancio irreparable!  
¡Cuánto llanto de espaldas agobiadas!

...

¡Arriba brazos!  
¡Altas las razones!  
¡Grande el ímpetu!

INTXIXU y  
CORO      Por mi madre y mis hermanos,  
las abejas de mi casa  
saben que he muerto...

Ahora estoy en los silencios limpios.

MARI      Limpios los silencios.

INTXIXU      Sin invierno.

MARI      Sin más inviernos.

INTXIXU      Ni canciones de nieve.

MARI      Nieve sin canciones.

INTXIXU      Los huesos limpios...  
Duras aristas de acero  
han crecido en mi cuerpo.

Duras aristas de acero.

CORO                    Un gran incendio nos viene  
                          de lso valles de Vizcaya...  
Altos humos  
y truenos sucesivos,  
de monte en monte,  
desde Guernica.  
¡Cómo se quema la tierra!  
¡Cómo estallan las piedras!  
...  
Siete,  
setenta, setecientos, siete mil,  
Contad  
los niños que gritan,  
y en las dulces laderas  
-verde y agua-  
de los montes de Luno,  
escribid con letras grandes  
los nombres  
de los que ya nunca nos mirarán  
con los ojos que nos miraban...

AKERBELTZ            Bueno es el carnero negro,  
                         pero mejor el de cola blanca  
...  
...

CORO y  
AKERBELTZ           Hoy es miércoles y viernes  
                         ayer fue sábado y marzo...  
El demonio gobernador  
ha venido a nosotros

el demonio gobernador  
ha cenado con nosotros.  
El demonio gobernador,  
lleva su cabeza de cuernos azules,  
está plo, plo, plo, plo...  
en un gran caldero,  
Bueno es el carnero negro,  
cuando no es demonio gobernador.

...  
**¡DEMONIO!**